



BAIGORRIKO HERRIA

# 2021eko Otsailaren 26eko herriko kontseiluaren bilduma

**Bilkura deia :** 2021ko otsailaren 22a

**Kontseilarien gelan,** Jean-Michel Coscarat, auzapezaren ardurapean

**Herriko kontseilarien kopurua :** 15

**Hor ziren (14) :** Jean-Michel Coscarat, Annie Juantorena, Bernadette Mousquès, Marie-Agnès Haristoy, Isabelle Arangoits, Maddalen Dupuy, Hélène Deguiraud, Sandrine Mercapide, Antton Curutcharry, Daniel Ithurburua, Betti Bidart, Betti Olçomendy, Frantxoa Mocho, Jean-Paul Bibes

**Barkatuak (1) :** Sébastien Clauzel (Daniel Ithurburua jaunari poderea)

**Falta :** 0

**Bilkuraren idazkaria :** Jean-Paul Bibes

Cécile Larue, herriko etxeko idazkari nagusiaren laguntzarekin

*Bilkura hastapena : 20:35*

## Aipagaiak :

Zkia	Aipagaiak	Bozkaldia
0	<b>2021eko urtarrilaren 19ko herriko kontseiluko bilkuraren bildumaren onarpena</b>	Ahobatezkotasuna
1	<b>« Cuburu » familiak duen etxearen engaiamenduaren egingarritasuna, EPFL egiturarekin</b>  EPFL egiturak egingarritasunaren ikerketa gastuen % 50a beregain hartzen du	Ahobatezkotasuna
2	<b>RIFSEEP animazio eta teknika sailaren ezarpena</b> RIFSEEP ordainsarien ibilmoldea, teknika saila (« agent de maîtrise ») eta animazio (axuant eta animatzaileak) sailean ari diren langilentzat finkatzea	Ahobatezkotasuna

**BAIGORRIKO HERRIA**

<b>3</b>	<b>Inbertsioen 2. diru-kopuruaren kontabilizatzeko baimena, urteko konduak bozkaldia aitzin.</b> Horrela, inbertsioen gastuak lehen trimestrotik engaiatzen ahal dira, urteko aurrekontua bozkaldiaren onarpena ukan gabe.  « 2031 » konduan sartzen diren gastuak dira (ikerketa gastuak)	Ahobatezkotasuna
<b>4</b>	<b>Akanpalekuko prezioen emendatzea</b> Xakur batekin den egonliarrarentzat = 1€ gauarentzat	Ahobatezkotasuna
<b>5</b>	<b>Langileen oren gehigarriak zerrenda</b> Zerga etxeak legedi berri bat agertarazi du. Ordu gehigarriak dituzten langileen zerrenda, zerga etxeari igorri behar zaio. Onartua.	Ahobatezkotasuna
<b>6</b>	<b>Etchart-Semerena familiarentzat argindarra plantan ematea</b> Aireko kableen lurperatzea eta herriko argi-elektrika haben arraberritzea, Posta gunetik jandarmeria arte. Gastu orokorrak : 8 423,72 €. SDEPA eta FACE egituraren beregain hartzea : 6 761,57€ Baigorriko herriaren gain (bere barneko diru-iturritik hartuz) : 1 662,15 €	Ahobatezkotasuna
<b>7</b>	<b>« Kintoan barna » egitasmoarentzat dirulaguntza gehigarria</b> « Kintoan barna » mugaz bi aldeetako egitasmoa 2021eko abendura luzatua da. Ondorioz AIBA-ko animatzailearen hilabetsaria ordaintzeko, Baigorriko herriko etxeak erabaki du dirulaguntza bat ekartzea, 2 180 eurokoa.	Ahobatezkotasuna

*Bilkura aratseko 10ak laurden gutitan bukatu da.*

*Compte-rendu affiché conformément à l'article L2121-25 du code général des collectivités territoriales*